

A I N H O A



HERRIKO ALDIZKARIA

2023ko urtarrila

AUZAPEZAREN AGIANTZAK

Gure kargualdiaren hastapenetik, Herriko Kontseiluak interes orokorreko lehentasuna duten ohiturak garatzea du xede.

Salgai izanen diren 8 bizitegi eraikitzeke baimena lortu ondotik, MUXELTEGIKOBORDA egitasmoa gauzatzen ahalko dugu.

Lursailen erosteak (OPPOCA, IRALA, SCI IONI eta EVRARD) oinezkoendako bideen segurtasuna, aparkatzearen eta zirkulazioaren kudeaketa inguruko lana segitzeko bidea ematen digu, gure herriaren etorkizunerako.

Ekainean ukanen ditugun saihesbideari buruzko ingurumen-ikerketaren emaitzek eta Atelier Annegardoni ikerketa bulegoaren lanak gogoetak egitetik erabakiak hartzera eramanen gaituzte

2023. urte honetan.

Milesker elkarteei, eskaini dizkiguten animazioengatik eta herriko langileei herritarren zerbitzuko egiten duten lanarengatik.

Herriko talde osoaren izenean, nire agiantzarik hoberenak eskaintzen dizkizuet. 2023. urtea zoriontsu, osasuntsu eta arrakastatsu izan dakizuela.

ANTOLAKETAK KONTUAK PROIEKTUAK

Saihesbideari buruzko puntua

Herriko taldea Ainhoako saihesbideaz arduratzen diren departamenduko lantalde teknikoekin bildu da, bideez eta azpiegiturez arduratzen den departamenduko kontseilaria den Philippe Echeverriak lagundurik. D4 eta D305 errepideen artean, saihesbidea izanen den tarteari buruzko ingurumen-ikerketari buruz puntua egin dugu.

4 hiruhilekoen denboran iragan den ikerketak aberedi eta landaredi babestuak ezarri ditu agerian, gune hezeek gain. Beste ingurumen ikerketak egin beharko dira hain segur. Beste puntu bat egin izanen da 2023ko bigarren urte erdian.

Herriaren antolaketa

Herriak Euskal Hirigune Elkargoaren diru laguntza bat baliatu ahal izan du herriaren antolaketari buruzko ikerketa baten egiteko. Hirigintza bulego batek eramanik eta Departamendua, Euskal Elkargoa, arkitektura, hirigintza eta ingurumena arloko kontseiluaren parte hartzearekin, ikerketa honek Ainhoan egin daitezkeen antolaketari buruz gogoetatzea du helburu: zirkulazioa, aparkalekuak, aparkatzea, bide seinaleak, karrika nagusiaren antolaketa, pilota plaza, etorkizuneko hilerria... Hori dena baliagarri izanen da ondoko urteetan herria antolatzeko koherentzian eta harmonian.

2019an, saihesbidearen kokapenari buruz abiatutako ikerketa publikoaren bidez Ainhoar batzuek eskatuz geroz eramana izan da ikerketa hori.

Herriko kontseilua ikerketa honen gidaritza batzordearekin bildu da behin baino gehiagotan Ainhoarrei aurkeztua izanen zaien proiektua apailatzeko 2023ko bigarren hiruhilekoan.



2022ko kontuak eta 2023ko proiektuak

2022. urteko inbestimenduak:

- ◆ Materiala erostea, hala nola bide seinaleak, argiak, 4 770€ko heinean.
- ◆ Bideak: bi urteren epean, bideen zaharberritzea (2021-2022), 124 000€ko heinean.
- ◆ LARRONDOA antolaketa: lurrak erostea, diagnostikoa, 24 900€ko heinean.
- ◆ Webgunea eta eskolako bloga 22 000€ko heinean (herrien informatizatzerako inbestimendu funtsak osoki bere gain harturik).
- ◆ Maileguren pagatzea 85 000.00€ko heinean.

Hots, 260 670€ orotara

2023ko inbestimenduak: herriak ibilgailu berri bat erosiko du MASTER MASCOTT delakoa ordezkatzeko. Bide obren programa aitzina joanen da eta, datozen asteetan, 2023. urterako ekintza guztiak finkatuko ditu herriak, kostuaren arabera.

Muxeltegikoborda

10 urteko prozeduren ondotik, azkenean, Muxeltegikobordako antolaketak egiteko eraikitze baimena lortu dugu. ELTEP, COL eta Herriko Etxearekin elkarlanean, Delanne arkitekto agentziak gidatzen duen Muxeltegikobordako antolaketa proiektua aitzina joaten ahalko da...

HERRIAREN BIZIA

Ainhoarren/Herriko kontseilarien arteko topaketak

Herriko kontseiluak Ainhoarren eta herriko kontseilu kideen arteko topaketak berriz abian ezartzen ditu hilabeteroko lehen larunbatetan, 09:30etik 12:00etara, Herriko Etxean. Galdera guztiak (herriaren bizia, auzotegien bizia...) ongi etorriak dira, eraginkorrak nahi ditugun topaketa horien denboran. Lehen biltzarra otsailaren 4an iraganen da.

Webgunea / eskolako bloga

Herriko webgunea eta eskolako bloga bururatuak izanen dira 2023ko lehen hiruhilekoan.

Tailer numerikoak

La Fibre64 elkartearekin elkarlanean, Ainhoako herriko taldeak gaikako tailerrak antolatzen ditu, ordenagailua, tauleta eta telefono adimendunei buruz, apirilaren 12, 19 eta 26an eta maiatzaren 3an. Zuk ere, ondoko gaietan dituzun jakintzak hobetu nahi badituzu:

- linean erosi eta saldu segurtasun osoz;
 - zure hurbilekoekin komunikatu WhatsAppen bidez;
 - osagarriaren zerbitzuko numerikoa ezagutu;
 - zure argazkiak ordenagailura igorri;
 - egunerokotasuneko aplikazioak hautatu eta instalatu;
 - dokumentuak eskanatu eta digitalizatu telefono adimenduaren bidez;
 - mezularitza hobeki erabili eta segurtasun neurri egokiak hartu;
- ez duda Herriko Etxearengana joatea izena emateko martxoaren 15a aitzin, lekuak murriztuak dira. Tailer horiek denei irekiak dira eta urririk.

Helbideratzea

Berriz ere, posta zerbitzuak igorleei helbide zenbakiduna jakinarazteko beharrari buruz informatuko ditu Ainhoarrak (kolakiak gutunen gainean), hots, errezibitzen dituzten gutun azaletan, bidearen izena eta zenbakia adierazteko beharra. Etxearen izena utz daiteke baina bigarren lerroan.

2023ko otsailetik goiti, soilik etxearen izena daramaten gutunak igorleei birbidaliak izanen zaizkie, posta zerbitzuak helbideratze nazionaleko fitxategia erabiltzen baitu.

2023ko urtarrila

Xedarratzea

Zirkulazio bide hertzetan bizi direnei oroitazten zaie xedarratze lanak egin behar dituztela maiz, denen segurtasunerako eta telefono eta argindar sareen ibilera onerako.

Identifikatutako jabeei gutun bat bidaliko diegu laster.

Herriko Etxeak adierazi ondotik, xedarratzerik ez bada egina izan, herriak ditu lanak eginen, kostua jabearen gain ezarriz.

Bizilekuari buruz informatzeko departamenduko agentzia (ADIL)

ADIL 64 agentziaren (webgunea: adil64.org) xedea da aholkularitza neutrala eta osoa eskaintzea bizilekuari buruzko legezko, diru eta zerga mailako edozein galderarako, izan zaitezten jabe, alokatzaile, edo etxe bat erostekotan edo eraikitzekotan bazaude.

Adinekoen bazkaria, François Baptisten 100 urteak

2022ko abenduaren 15ean, Ur Hegian jatetxean, Herriko Etxeak herriko adinekoei eskainitako bazkaria kari, Ainhoako auzapeza den Michel Ibarluciak atsegin handiz omendu du François Baptiste, 1922ko abenduaren 18an sortua.

Michel Ibarluciak bere haurtzaroa aipatu du eta François lanean ikusteko plazera Grachiorenea etxean. François-k oraindik duen alde zirikatzailea ere oroitazten du auzapezak.

François Baptistek mende bat historia zeharkatu du Ainhoan. Ainhoan sortua, ez da nehoiz herritik joan, Ainhoar guziek ezagutzen duten norki ospetsua da.

Duela bi urte zendu zen Atchoun bere emaztearekin, bi haur ukan zituzten, Jean-Louis eta Marie-Agnès, 4 biloba eta 3 birbiloba.

Marie-Agnès alaba eta Christian suhiaren ondoan, arotza izan zen Françoisi haren lanbidea gogorarazten duen trofeoa eskaini dio Michel Ibarluciak, herriko eskulangilea den Ibanek zizelkatutako obra.

Une hunkigarria denentzat.



Eguberriko merkatua, Elorri elkarte

Joan den abenduaren 14an Ainhoako eskulangileen eta ekoizleen Elorri elkarteak antolaturiko Eguberriko merkatuak arrakasta handia bildu du, gaualdiak ere, nahiz eta munduko zango baloi txapelketaren erdi finalak ziren...

Eskola: Eguberriko krakada eta opariak Ainhoako eskolako ikasleentzat, txokolatea denentzat!

Abenduaren 16an, hiruhilekoaren azken eguna eta oporretara joateko lehena, besta eguna izan da, txokolate eta opari frankorekin.

Aurten ere, Bizar Zuri eskolatik pasatu da.

Haurrek Eguberriko opari andana bat aurkitu dute izaiaren oinean, jolas uneetan edo eskolaldi inguruko uneetan jarduera gehiagotan aritzeko bidea.

Xitoentzat gurasoen elkarte eta herria ados ezarri dira eskolako kontseiluan haurrek adierazitako eskaerei baikorki erantzuteko: esku baloi saskia, badminton sarea, badminton erraketak, uztaiak eta mota guzietako baloiak aurkitu dituzte Bizar Zuriren bizkar saskian.

Besta egun goxo-goxoa. Bizar Zuri haurren inguruan zebilen eta eskertzen dugu etortzeagatik, nahiz eta ordutegi kargatua duen besta garaian. Saldoan etorri diren gurasoak ere eskertzen ditugu. Bixkotxak eta txokolate beroa apailatu zuten irakasle eta herriko langile guzien atseginerako. Denei esker, arratsalde polita eta arrakastatsua izan da.

Hautzaroa / Gazteria

Haur-Gurasoen Harrera Gunea

ELEA Haur-Gurasoen guneak bere ateak berrirekiko ditu ortzegunetan, 09:00etatik 11:30era, Oihartzuna gelan (burguko pilota Plazaren gibilean), **Senperen**.

- ♦ Haurren eta gurasoen arteko topaketak errazten dituen leku goxoa da, denei irekia, urrik eta izenik eman gabe.
- ♦ Guraso izanen direnentzat, guraso edo heldu erreferente batez lagundutako 0 eta 6 urte arteko haurrentzat.
- ♦ Lasaitasun eta lagun-arteko une goxo bat pasatzeko, trukatzeko eta jolasteko denbora bat partekatzeko norbere haurrarekin, ttipi-ttipiei egokitutako xoko batean, hartzainaren etxeko, hartzaindegiko edo eskolako lehen egunak errazteko.
- ♦ Bakoitza etor eta joan daiteke nahi duelarik.
- ♦ Harrera kideak daude zuen entzuteko eta laguntzeko prest.



Panneupocket aplikazioa

TÉLÉCHARGEZ GRATUITEMENT L'APPLICATION PANNEAUPOCKET

Pour vous informer et vous alerter, votre Mairie s'équipe de **PanneauPocket**.

Toute l'actualité de votre Commune, les événements, les informations de coupures réseaux, travaux sur la voirie, alertes météo et bien plus encore... seront toujours dans votre poche, où que vous soyez, quand vous le souhaitez.

Disponible sur Play Store (Android), App Store (Apple) ou AppGallery (Huawei)

Retrouvez également toutes les infos et alertes des communes depuis un ordinateur sur app.panneupocket.com

Arditeia etxaldea

Txalo Bixente Eदारari, Lyoneko nazioarteko txapelketan urrezko medaila irabazi baitu egiten duen ardi esneko jogurt naturalari esker!!!



Segida etxaldea

Txalo Segida etxaldeari "Bizitzeko artea" sailean turismoaren trofeoan hirugarren bururatu baitu.

2022KO EGOERA ZIBILA

Sortzeak

PACE Fabrizzo, Grégory 2022/03/02an sortua BAIONAn
LAXANETTE-NABA SAINT-JEAN Eneko, Mathis 2022/07/06an sortua BAIONAn
BIZET Ekaitz 2022/10/23an sortua BAIONAn
FRANÇOIS Logan, Thierry 2022/12/31n sortua BAIONAn

Ezkontzak

Amaia ELISSALDE eta Etienne, Germain, Marie ECHINARD 2022/08/27an

Heriotzak

MARTICORENA Maurice, Louis 2021/12/15ean zendua DONIBANE LOHIZUNEn
ITHURRIA Marcel 2022/04/06an zendua BAIONAn
SOUBELET, LARRALDE alarguna, Marie, Eleuterie 2022/05/10ean zendua DONIBANE LOHIZUNEn
CARADEC Jean Robert 2022/06/23an zendua BAIONAn
LARREBOUROU Michel 2022/06/24an zendua ZURAIEN
ANORGA Antoine, Michel 2022/09/23an zendua SARAN
GAUTHIER Jean-Luc, Bernard, Michel 2022/10/03an zendua KANBOn
MARTICORENA Marianne 2022/10/30ean zendua ZURAIEN
HALADUS Mieczyslaw, Jan 2022/12/11n zendua KANBOn
ANCHORDOQUY JARRIE Marthe 2022/12/20an zendua DONIBANE LOHIZUNEn

